

Anderren joan - etorriak

Bibiñe PUJANA, Luis K. ABEAL

I. atala

Ander, bere gurasoak beti mutil koskortzat euki eben, baina urteak ez joakozan alperrik, ez. Hankak luzatu jakozan, baita surpean biboteko lehenengo uleak urten ere. Eskola urteak amaitu ebazan eta bere ogibidea edo lana zein izango zan pentsatu behar eban.

Etxagunak ziran, baina lau nebarreba. Bera danetatik gazteena zan. Zaharren biak neskak ziran eta hirugarrena mutila. Arreba bata, Kontse, karmeldarren konbentuan lekaiame egoan; bestea, Felisa, Elorribeko etxagun zan Andonigaz ezkontzeko ebilen. Honeek ba Anderri buruko min handirik ez eutsien emoten. Bai, ostera, bere anai zaharrena zan Patxik.

—Abade joan balitz —pentsatu eban «baten baino sarriagotan» Anderrek—. Buru azkarra zan eskolan eta joan balitz...

Baina ez, Patxik, zaharrena izanik, baserria beretzako izango zana ba ekian, eta etxean gelditu zan.

Ander zan ba orain bere etorkizuna pentsatu behar ebana.



II. Atala

—Ikazgin joango naz. Irabaziak, lapikotxoan gorde eta lurpean sartu barik, eginala etxaguntzak erosten gatatuko dodaz, eta halan egun baten Ola ipintea gogoratzten bajat, bertan lan egiteko «maister» edo errentadore ugari izango dodaz.

Egun batzuetan «buru-bide» honeekaz ibili zan Ander. Azkenean bere erabagia gurasoei azaltzea pentsatu eban.

—Ez, ez dago txarto pentsatuta —esan eutsan amak entzunegaz batera.

Anatxo (holan eukan amak izena) diruzalea be ba zan eta «andurre dariola» jarri zan bere Andertxo jauntxo bihurtuko zala pentsatugaz bakarrik.

Aita «mundu gehiagokoa» zan. Konbentuetatik be asko ibilia, —hiru anai praile eukazan—, eta Anderrek aberastuteko emondako arrazoiakaz ez zan konforme geratu.

—Joi praile mutil! Bizimodu ederra eroango dok: azala zuri, ondo jan, lan... minegaz sermoiak egiten. Hik horretarako faltarik ez dok, eta gainera zerua «aurrez irabazita».

—Bai aita, arrazoa daukazu, baina ez. Ez naz ni konbentu barruan biziteko egina. Gainera neskabila mosu gorriak asko atsegin jataz eta... ez, ez naz praile egingo.

III. atala

Hartu ebazan ba ikazginen tresnak: txondorra joteko palea, ikatzak batzeko belekia, ikatza eta lurra banatzeko zulo haundidun bahea, eta San Blas aldeko basora bere osaba Linogaz joan zan.

Han lehenengo lana txabolea egitea zan. Ikasginen txabolea egiten osaba Linok ondo ekian.

Urkuilu bi aurrez aurre jartzen ziran. Hareen gainean makila luze edo gailurra. Gailurretik beherantz, lurreraino, teilatua egiteko saihetzak edo makila mehagoak. Gero zohiekaz dana estaldu.

Barruan, lo egiteko tokia bigun eta ezetasun barik egoteko inerre eta, haren gainean, idea ipinten ziran.

Ikazginen bizitzea zelakoa izaten zan, Linok Anderri txabolea egiten egozan bitartean azaldu eutsan. Lan hori maister edo errentadoreak egiten eben, errentearen truke. Beraz ez eben alogerarik. Ikatza Olara eroaten ebenean errealen bat emoten eutsien, baina ez alogera moduan. Txabolea egiten erabilitako makila edo egurrak bai, honek ikazgintzat izaten ziran, ikazgintzako lanak amaituten ebenezan etxeetara eroan eta su-egurtzat erabilteko.

Anderrek osabeak esandako guztiak adi entzun ebazan. Laster konturatu zan bide horretatik aberastutea ezin nekoa zala.

—Dana dala ta «iakete» etorri nazen txondor bat egin barik ez naz etxera bihurtuko, —pentsatu eban bere arterako.

IV. Atala

Ilunkeran txabola aurrean sua egin eta gantzagiegaz «baba txokorrak» egosten ipini ebezan (hau zan ikazginen jana). Afaldu ebenean beste ikazgin batzuk hurreratu jakezan eta gertakizunak (egi eta guzur) kontatzen hasi ziran.

—«Torreko» Isidro eta «Kantarranako» txoria (ezizena) lako ikazgin zelebrenik ez dot ezagutu, —inoan Manuk. Behin baten, herriko jaietan, San Isidroetan, Iger-tuan txondorra biztutea gogoratu jaken. Biztu eben, baina zaindu beharrean idi probak ikusten plazara joan ziran. Bitartean txondorra erre egin jaken. Orduan herriko bertsolariak honelako bertsoak egin ebezan:

Isidro Torrekoa
Igertu buruan
txondorrak erabili dau
zoroen moduan.

Isidrok euki baleu
zentzuna buruan
ez eban ixituko
txondorra orduan .

Isidro «sobresante»
Txoria zan kabu
San Isidro egunean
txondorren akabu.

Isidro eta Txoriari jasotakoa entzuterakoan ikazginak barre handiak egin ebezan, batez ere Anderrek. Gero, sua amatau zanean, lo egiteko txabolara sartu ziran.



JESSE-84

V. atala

Lino eta Ander goizean goizetik jagi ziran eta txondorra egiten hasi ziran.

Botoa edo Ikatza egiteko lekua lehengoa izan izan. Hau da: lehenago ere ikatza egindakoa.


—Ikatza egiteko pago, hareitz edota edozein egur da ona, —inoan Linok. Txarren txarrena gaztainea da. Honegaz egindako ikatza «polborea» egiteko erabilten dabe. Guk, gehienetan —jarraitu eban Linok— pago egurra erabilten dogu, mendi honeetan ugariena dalako.

Hartu ebezan ba neguan inausitutako pago enborrak eta txondorra egiten hasi ziran: Palu bat lurrean zutik (artez) ipini eben. Gero, haren inguruan, mendi bat egiteko pago enborrak. Lehenengo ALDORRA edo enbor lodiak, gero honeen gainean «EPAIKIE» edo egur meheak; egur mehe honeen gainean idea, eta azkenik, haizerik ez sartzeko, «IDURIE» edo lurregaz txondorra estali eben.

Txondorra prest ipini ebenean sua biztuten hasi ziran.

Anderrek, baztar baten, sua egin eban eta hango txingarrak ikazginen palan hartu, txondorrari erdiko makilea (arteza) kendu eta txondorra biztu eiten zulo horretara bota ebazan. Txingarren atzetik enbor zati txikiak ere bota ebazan. Sutan jarri ziranean txondorrari goiko zuloa sarratu egin eutsan, haizerik ez sartzeko.

—Ikatza egiteko egurrak egosi egin behar dira, eta ez erre —inotsan osaba Linok.



Ander lan honeek egiten oso pozik ebilen, baina...

—Ez, hau ez da nire bidea. Ikatza Olara eroaten dogunean beste opizio bat ikasito dot —inoan bere arterako.

VI. atala

Zortzi egun igaro ziranean, burdikada ikatza hartu eta Olarantz abiatu ziran. Txarto egositako zatiak bertan itzi ebezan, hurrengo txondorra egiterakoan barriro egosteko. Estartan lupetz asko egoan, eta burdikadea ekartzea asko kosta egin jaken, baina kostata ere, azkenean «Zubizolako» Olara heldu ziran. Anderrek alogeratzat hiru erreal hartu ebazan, Linok, barriz, erreal bat bakkarik ba beronen lana errentearen truke izan zan.

Anderrek Olatik urten baino lehen, burrinea zelan egiten zan jakin gura izan eban. Bertako ugazabak, labur laburrean, Olan bertan azaldu eutsan:

—Hasieran Olak basoetan egoten ziran, «karabaiak» moduan, baina gero uraren indarrez baliatzeko erreka baztarretara jatsi genduzan. Hemen, txirrinka honen erdiko gabi-ardatza urak bultza egiten dau, eta honek haupo, gabi eta beste makinak igiduran ipinten dauz. Hemendik burrina oso ona ateratzen dogu.

—Hor, aurrez aurre, dagoan toki horrek Erregoalde dauka izena. Bertan mea eta lurra banandu egiten doguz, meatokitik nahastuta etorten dira eta.

Ola honetan lana zemenditik marti atzenerarte egiten da.

—Zergaitik hori? —dino Anderrek.

—Ba garai horretan ura ugari dagoalako gabi ardatza txairo eta gelditu barik erabilteko. Gainera «maister» edo errentadoreak be, neguan labrantzetan ez dabe lanik izaten eta halan hemen egiten dabe lana errentearen truke.

VII. atala

Ander, dan dana ondo entzun eta gero, bere baserri-
ra joan zan.

—Zer, zelan joan jatzu ba? —esan eutsan amak ikusiaz batera.

Anderrek patrikerako hiru errealak atara, amaren eskuan ipini eta erantzun eutsan:

—Ba... ikazgin «ez dago zeregin». Lan asko eta diru gixi. Ez, aberastuteko bide eskasa da. Beste opizio edo ogibide bat hartu beharko dot.

—Eta ezkontzen ba zara? —dinotso amak—. Lehen-gunean meza ostean Ibarreko Katalinegaz egon nintzan. Bere alaba bakarra (berau be urikoa) ezkontzeko asmo handia eukala igarri neutsan. Apur bat ekin baneutsa, uste dot etxeratuko nebala. Arpegi alaia ipini eban zutaz

hitz egin neutsanean. Baina... zure baimen barik ez neban ezer egin gura, eta ez ginan «ezertan gelditu».

—Tira ama! Neska hori alaba bakarra, aberatsa eta gura dozun guztia izango da, baina tenteltxo deritxat. Gainera zuk ondo dakizu labrantzako lana inoiz be ez jatala atsegindu.

—Oraintxe nago ni ona! Domekan, barriro alkartzen garanean, ze erantzun emongo deusat ba?

—Baina, erantzuna? Ez dozu esan ba «ezertan» ez ziniela gelditu?

Ana zer esan ez ekiala gelditu zan. Anderrek, bere egoera larria ikusirik, esan eutsan:

—Tira ba! Egina eginda, esaiozu, esate baterako, oraindik gazte sentitzen nazala eta ezkontzeko gogorik ez dodalo.

—Baina hori ez da egia. Zabaleko Errosatxori egiten deusazuzan txerak herrian zabal dabilz.

—Beno ama. Hori nire bururako ardurea da. Gainera lehenengo «jauntxo» egin behar naz eta gero gerokoak.

VIII. atala

Ama semeak ezkontzari buruz barriketan ebilzala aita etorri zan. Ander ikusi ebanagaz batera esan eutsan:

—Basotik ibili hazen artean hiretzat opiziorik onena zein izango dan aztertzen buruhauste askogaz ibili nok,

badakik ba aita batek semearentzat beti onena gura izaten dau eta... Opizio asko aztertu ta gero errementeritza hartu behar dokela uste joat. Giltza, untze, atxur, zaldientzat erradurak eta abar eta abar egiten lan asko euki-ko dok. Nik, kortako behi pintoaren atzean dagoan sats piloaren azpian daukadan urrez betetako lapikotza emongo deustat «errero-zaharrak» salgai daukan errementeria edo burdinola erosteko.

—Ondo deritxat aita. Errementariak beti umore onean ikusten dodaz eta... abestiak esaten dauan moduan:

Txin txin txin txin
diruaren hotsa
haretzek emoten deust, maitia,
bihotzean poza.

Egia dala uste dot. Bai, diruok hartuko dodaz, eta aberastuten nazenean gehiagotuta itzuliko deustudaz.

Hartu ebezan lapikotxako diruak eta aita semeok Joxe erreron etxerantz abiatu ziran. Errero zaharra etxeko atee-tan makilea eskuetan eta urrineria begira topatu eben.

—Arratsaldeon, aita semeok. Ze albiste dakarzue ba?

—Ba, —erantzun eutsan aita— burdinola edo errementeria saltzeko asmotan zabilzala entzun dogu eta ia tratuan konpondu eta erosten badogu gatoz ba.

—Bai! ez gara konponduko ba! Nik zaharra izanik ezin dot bertan lanik egin. Beste aldetik mutil zaharra naz eta nori itzi be ez daukat. Merketxo izan arren be po-

zik salduko dot. Bertako tresnak lanean jardungo dabela jakiteak poztasun handia emoten deust eta.

Egin eben ba tratua eta joan baino lehen «errero zaharrak» behin baten herriko abadeagaz jazo jakona kon-tatu eutsen.



IX. atala

«Herrira uda guztietan Gaztelaniatik oporrak igarozten etortzen zan abade zahar bati nire «zelebrekeriak» asko guztatzen jakozan eta sarri etortzen jatan burdinola edo errementerira.

Behin, ni konturatu barik sartu zan, eta lanean nengoan bitartean ezer esan barik atzean egon zan. Bertan egoala konturatu nintzanean:

—Arrastion, D. Pascual!, —esan neutsan.

Egun horretan abadea adarra joteko asmoaz etorren eta esan eustan:

—«Pero herrero, ¿cómo es posible que habiendo los adelantos que hay hoy en día usted tenga que dar tantos porrazos para hacer agujeros en el hierro?»

Hain «otosotoan» harrapatu ninduan, zer erantzun ez nekiala gelditu nintzan. Abadeak nire zer esan «jakin eza» ikusirik barre algara handiak egin ebazan.

—Berori be harrapatuko dot ba!, pentsatu neban neure artean, eta bai!, «ordea ordaintzeko» eguna heldu jatan.

Hurrengo asteko barikuan, «meza liburu» ederra besapean ekarrela, errementerira etorri jatan.

—Arrastion, errero, esan eustan.

—Arrastion, D. Pascual. Pero, —jarraitu neban—, ¿cómo es posible que habiendo los adelantos que hay hoy en día usted sea sólo cura de aldea y no arzobispo?

Abadea, surteko txingerrak baino gorriago jarri zan. Egun horretan urrumuskadarik egin barik agur esan eta joan zan.

Handik atzine be sarri etorten jatan, baina berak be «orraitino» berbak hobeto neurtuten ebazan».

Kosmek eta Anderrek itzelezko barreak egin ebezan errementari zaharraren zelebrequeriak entzuterakoan.

—Bihar, goizeko seiretarako, errementeria garbitzeko etorriko gara —esan eutsan Anderrek erroero zaharrari.

—Bai, ondo dago —erantzun eutsan Joxek—. Neu be ordu honetarako hemen egongo naz.

Heldu zan hurrengo goiza eta Ander eta Joxe errementerira era bardinean heldu ziran.

—Hilabetea —esan eutsan Joxek— ni izango naz errementaria. Zu mailulari moduan egongo zara, opizioa ikasi arte. Sutegian baten bakarrik berotu eta hiru lau untza edo gehiago egiten ikasten dozunean errementari trebea izango zara. Orduan bakarrik itziko zaitut eta ugazaba izango zara.

Bai, laster be egin zan ugazaba Ander. Errementari trebea izateko legeak hilabetea ikasi ebazan. Laiak, atxu-

rrak, igitiak, untzak, erradurak... Ander edozer egiteko gertauta egoan.

Lana faltatu barik eukan. Berak «honenbestean» egiten eban lan. Denpora gitxian diru pilotxua batu eban. Lehenengo diruokaz basabehi bi erosi ebazan. Gero harritzko etxe eder bat egin eban, oraindik bertara bizitzen joateko asmorik ez eukan baina.

X. atala

—Orain diru behar izanik ez daukat eta andragai bat bilatu behar dot —esan eutsan behin bere amari.

Errosetxo Zabalekoa igande guztietan errosario ostean ikusten eban, baina ez ekian onartuko ba eban, ze herrian zabal ebilen botikario gazteak bere atzetik ebilela.

—Errekadua egin arren ezer ez dok galtzen mutil!
—esan eutsan behin Anatxok. Domekan meza ostean Urrufina, bere amagaz, egongo naz.

—Beno, baina ixilean egin gero!

—Ez estutu, neure eskuetan itzi eizu.

Heldu zan ba domekako meza ostea, eta denporarik galdu barik joan zan Ana Urrufinarengana.

Andurra dariola jarri zan Urrufina Anatxok zein asmo eroian esan eutsanean. Ondo ekian Anderrek «dirua satsa legez» egiten ebala.



—Gaur berean nire senarrari esango deusat, eta gure Errosetxok gure baimena euki ezkeru senartzak pozik baino pozago hartuko dau.

Agurtu eta banandu ziran ba ama biak, bakoitza bere baserrirantz.

—Eretxi ona dakart —Anderri etxera heldu zanagaz batera esan eutsan—. Zure ondasunen jakitun egon da eta nahiz eta erantzun zihurra aste barruan ekarteko gelditu, itxaropen onak emon deustaz.

Poztu zan Ander amaren albistea entzutean, eta erro-sario ostean ikusiko eban eretxiagaz inoiz baino dotorea-go jarri zan. Betiko moduan bere lagunekaz errosariora joan zan, eta Errosetxo, mantilla ederragaz burua estalita, aurreko pulpituaren azpian laster ikusi eban.

Eleizkizuna amaitu zanean urten eben guztiak eleizatik eta... ha zelako «purrustadea» Errosetxok Anderri egin eutsana! Buztana zapal dutako katua baino be latzago jarri jakon ondotik igaroterakoan, gona magala ukutu eutsanean.

—«Idargia laba gainean» ez dago antza —inoan Anderrek bere arterako.

Baina laster konturatu zan gertatzen zanagaz. «Puntuko» ikusi eban Errosetxo botikario gazteari itzalezko barreak egiten.

—A «zentenoa», horregaz ez jaukat zereginik —pentsatu eban bere arterako.

Ander, egun horretan, etxera inoiz baino goizago heldu zan. Hain bekoki astuna ekarren, laster konturatu zan bere ama zeozer jazoten jakola.

—Zer seme —esan eutsan esnea batzen egoan tokitik.

—Zer esatea gura dozu ba! Aste barruan erantzun bila ez dozula joan beharko, gaur berean emon deust eta.

—Hori ezin dok izan. Hi lako aberatsa non bilatuko jok ba?

—Ba, antza danez bilatu beharrik ez dauka. Botikario gazteagaz itzalezko barreak egiten ikusi dot eta.

—Horrek ez dau ezer esan gura. Barre, haregaz, baina ezkondu... zeugaz.

—Bai zera! Gona magala ukutu deusat ondotik igaro danean, zeozer esan gurarik, eta bere bekokia astun-astun ipini eta begiradeaz «azak hartzen» bialdu nau.

—Orduan jaramonik be ez egin, ha «geinekoa» bilatzeko faltarik ez daukak eta.

Ander, egun batzutan, motel ibili zan, baina lanak eta bertan irabazten ebazan alogerak emoten eutsien pozagaz Errosetxoren kalabazak laster ahaztu ebazan.

XI. atala

Ama, Errosetxoren ezetza hartu ebanetik, andra galan, langile eta aberatsa inoiz baino finago, bilatzen ebilen.

—Errotariaren alabea be txarra ez litzake izango —esan eutsan baten bere senarrari.

—Bai, baina errotea ez da harentzat. Haren anai zaharrena dan Lontzorentzat baino. Gainera beste ahizta bat be ba dauka.

—Beno, errotea berentzat ez izatea ez dau ardura. Berak josten eta gure semeak errementari, ez dot uste gehiago beharko dabenik.

—Ez, hori be egia da, baina lehenengo Anderri eretxia eskatu beharko dautsazu, ez?

—Hobago! Gaur bertan esango deusat.

Gabaz, afaltzen hasi ziranagaz batera amak bere semeari pentsatutakoa esan eutsan.

—Neska hori «dotoretzkoa» ba da —esan eban Anderrek— baina ez, txarto pentsatuta ez dago. Bihar berean joan eta errekadua egiozu.

Egunik galdu barik, hurrengo goizean, Ana izeratxu zuri ta guztiz errotara joan zan. Sendi guztia etxean egoan eta eroian zeregina zein zan danari batera esan eutsen.

Bizenta, —joskilea holan deitzen zan—, baserririk baserri josten joateko makinea prestatzen ebilen, eta Anaxoren berbak entzuterakoan zer esan ez ekiala gelditu zan. Mutututa gelditu zan, baina bere arpegian «baietza» argi ikusten zan.

Anderrek ere poz handia hartu eban baietza zala jakin ebanean, eta ezteguak ospatzeko Ander Donearen eguna izendatu eben.

XII. atala

Bizentak, Anderrek egindako harrizko etxea betetzeko, arrea Pedro Luis arotzari agindu eutsan.

Egunak joan, egunak etorri, Ander Donearen egun hori ere heldu zan. Bolandera hotsean goizean goiz hasi ziran. Eleizkizunak Andra Mariko eleizan ospatzeko izan ziran eta senide guztiak ezkongaietik batera han alkartu ziran. Dotore baino dotoreago joiazan Ander eta Bizenta; Anderrek kapea eta sonbreru ederra eroiazan, Bizentak bere gona, atorra eta txaketilearen gainetik txintxirriz betetako mantoi baltza. Buruan, barriz, eskuz egindako izera-txu zuria.

Eleizkizunak luze eta ederto egin ondoren konbididu guztiak herriko plazara joan ziran. Hango tabernan zeozertxo hartu eta arreoaren atzetik ezkonbarrien etxea izango zenerantz abiatu ziran.

Bizentak eroian arrea oso ederra zan: hiru burdi bete beterik.


Lehenengoan kaxa eder bat, honen gainean —ohitura zan lez— ohea, guztiz ipinita, ohe azal zuri eta guztiz; ondo jantzita. Baita gorua, goru-txapela eta josteko «besapeko» makinea ere.

Bigarren burdian: Azpilea, arasea, eskapolota eta baul bi.

Hirugarrenean: Hiru kaxa eder, bi erropak gordetze-koak eta bat laboreak, 35 anega gari hartzeko modukoa.

Burdien atzetik, auzoko hiru andrak buru gainean, balotzaran ipinita, ontzi eta gainetariko tresnak eroiezan.

1924-25



Ezkonbarrien etxera heldu ziranean erredizok (muebleak) etxera sartu eta ezteguak ospatzeko sala handian gertatuta egoan mahaian jesarri ziran.

Lehenengo «oilo saldea» hartu eben, gero azea eta barbantzuak, honen ostean oilo egosia eta azkenez «okan-pasak». Edaritzat txakolina eta gainean aguardientea.

Jan eta edan ondo egin eta gero danak itzelezko umore onagaz ebilzan. Hango dantza, abesti, bolanderak eta apareju! Iluntzea ondo sartuta ospakizuna igaro eben.

Abemarietako kanpaiak entzun ebezanean bakoitzak bere baserriko bidea hartu eban. Ezkonbarriak be «beluegi» egin barik ohera joan ziran.

XIII. atala

Ezkondu eta hurrengo egunean hasita, hau da, egun bat ere galdu barik, Anderrek errementeriko lanakaz jarraitu eban. Bizentak etxea atonduten eukan beharragaz «joste apur bat» egiteko be ez eban astirik ataraten.

Egunero, bere ahizta Kasildak errotatik esnea eta barazkiak ekarten eutsazan.

—Da? —itaunduten eutsan, sarri sarritan, Anderrek bere koinateari— Lontzo noiz ezkonduko ete jaku, ba?

—Ez dakit, —erantzuten eutsan beti Kasildak— ezkontzeko «patxada gitxi» asmetan deusat. Neuk be aha-

legin handirik ez deusat egiten, ze... ezkontzen bada, ezkondu! nire hondamendia!, lekaime joan behar.

—Hori bai gero! Horretan arrazoi guztia emoten deusat. Ondo pentsatuta barriz, zu baino andra hobeagoa Lontzok non topatuko leuke ba? Senar-emazteak ez zarie, baina neba-arrebok ondo konpontzen zarie, eta... ezkontzeko «premina gorria» be ez dauka.

XIV. atala

Egunak joan egunak etorri, Bizenta haurdun gelditu zan. Oso pozik egozan aita-amok, eta «zetan esanik be ez» errotako osaba-izekook, aitabitxi eta amabitxi izateko go-go eukien eta.

Mundu honetan dana heltzen da eta umeari jaiotzeko eguna ere heldu jakon. Mikel Donearen egunean, goizeko 6etan, Bizenta txarto sentitzen hasi zan. Anderrek, herriko osagilea bizkor ekarri eutsan. Umea eragozpen barik jaiotzan, baina Bizentaren bizia arrisku handian egoan. Osagileak eginalak egin arren, aurrera ateraterik ez eban lortu. Erdi lotan, erdi lotan hil egin zan.

Ha zan etxe haretako samintasuna! Ume barriaren poza alde batera itzi eta heriotzearen arantza zorrotzak somatu behar.

Ander «lurra jota» gelditu zan. Sutondo baztarrean esarri, ondoko zurezko sebakon eukan umeari begiratu eta ixil ixilean negar egin; hori zan egiten ebana.

Hiletak hurrengo egunean egin ziran.

Bizenta andra gazteari, azken agurra emoten herri guztia joan zan. Andramariko eleizeak aspaldiokaz holako jendetza ez eban ezagutu.

Hileta egunean, gorpuaren aurretik eroan behar zan «aurre-ogia» eta hurrengo hiru egunetan, errespontsoetan sepulturan ipinteko behar ziran pamtixe edo «olatak» auzoko Andonek egin ebazan.

Bateoak beti alaiak izan arren, oraingo honetan alde-rantziz zan. Amaren hiletak ospatu eta hurrengo egunean semea bateatu behar eben. Mikel jarri eutsien izentzat.

Aita-amabitxiak, lehenago pentsatuta eukien moduan, errotako osaba-izekoak izan ziran.

XV. atala

—Hementik aurrera, gogoia altzatu artean, zu eta umea ere, errotara bizitzen etorriko zarie —esan eutsan Kasildak Anderri.

—Bai, etxe honetan oso goibel sentiduko gara eta hile batzuetan behintzat zuokaz joango gara.

Igaro ziran asteak, baita hilak ere, baina Anderrek bere etxera bihurtzeko geroago eta gogo gitxiago eukan.

Mutikoa, egunetik egunera, haziaz joian. Etxeko guztiak, urrea balitz legez, berari begira egoten ziran, batez ere Kasilda, berari ama deitzen eutsan eta.

Umeak izekoarenganako eukan maitasuna ikusirik, Ander bera be geroago eta hobeto sentitzen zan Kasildaren etxean.

Kasilda —esan eutsan behin—. Zer deritxazu ezkonzen bagara? Zeruan dagoan zure ahizta eta nire andra izan zan Bizentak poz haundia hartuko dauala uste dot.

—Bai —erantzun eutsan Kasildak— pozik be pozik ezkonduko naz, nire ahizta Bizenta oso zoriontsu egin zenduan eta...

Erabilzen asmoak Lontzori esan eutsiezanean, honek be poz haundia hartu eban.

Ezteguak ospatzeko «urlien» eguna izendatu eben, eta, egun hori heldu zanean, ezkondu ziran.

Kasildak ez eban arreorik eroan, beharrik euki ere ez, «emazte defundeak» eroandakoagaz etxea beteta egoan eta.

Ezkondu eta gero, egun batzuetan, euren etxean (Anderrenean) bizi ziran, baina, Lontzo bakarrik txarto egoala ikusirik, barriro, errotara itzuli ziran.

XVI. atala

Ander opizio zalea zan eta errota eta bere inguruei buruzko gauzak jakiteko gogoaz sartu jakon. Bere biziko maixua bere koinatu Lontzo zan.

—Lehenagoko errotak, gure asaben denporatakoak, oso bakunak ziran —azaltzen eutsan Lontzok.

Hare-harri bati erdian zulo borobil bat (aska bat) egiten jakon. Zulo edo aska horren neurriko beste harri borobil bat egiten zan. Uruna egiteko garauak askan ipini eta gaineko harri borobila biraka erabilten zan, eta garauak zapaldu eta zapaldu birrindu eta uruna bihurtzen ziran.

Erromatarrak harri borobil bi, bata bestearen gainean ipinita —hau da, aska barik—, erabili ebezan.

Gaur egun erabilten doguzan harriak —dino Lontzok— holangoak dira, zetan ezanik be ez, handiagoak, eta eskuaren indarrez barik, uraren indarrez dabilzanak. Harri bien erditik errotaperaino ardatz bat doa. Ardatz hori errotapean txirrinka bateri lotuta dago, antaparatik datorren urak txirrinka hori biraka ipinten dau eta berehala ardatzen bidez errotako errotarria (gainekoa, azpikoa geldi egoten da) biraka hasten da. Toberatik, harri bien erdira doazan garauak birrindu eta askara urun bihurtuta jausten dira.

—Artoa eta garia eihoteko harriak bardinak dira?

—Ez, garia eihoteko harriak zuriagoak dira, Trebinotik ekarriak.

—Ederto, hori ederto ulertu dot —esan eutsan Anderrek Lontzori— baina errotariak lapurren fama zergaitik daukazue?

—A!, hori..., antzineko esaerak «Errotaria aldatuko dok baina lapurrengandik ez haz aldunduko» esaten dau nagaitik esango dok, ez?

—Bai, nire aitari sarri entzuten neutsan.



—Ba esaerak halan esaten dau, baina ez, hori ez dok egia. Baserritarrak, eurak ekarritako laboreakaz aberastu egiten gareala uste jabeak, baina... begiratu nire praka zaharrari.

XVII. atala

—Orain —esan eutsan Lontzok Anderri— errota eta bere inguruari buruzko esaerak neuk esango deusudaz:

Behin, gariak esan eutsan artoari:

—«Jaungoikoak ez dau lur gainean bedar hobeagorik imini».

Eta erantzun eutsan artoak:

—«Ni nagoan lekuan be ez da goserik izango».

Beste baten mutiko batek itaundu eutsan bere amari:

—Ama!, ze gaba zan artoa zipli-zapla jan genduan gaba?

—Ene! seme. Gabon gaba, —erantzun eutsan amak.

—Ha zan gaba, gabaren gaba!, —esan eban semeak.

Hementxe doa hirugarrena.

Geure amaren etxera sarri etortzen zan eskeko batek halan esaten eban:

Orozkora joan nintzan
baita Saloara
hango alimentua
beti taloa da.

Hau, beste hau, eskeko batek errotariari jarritakoa da:

Ez dok tontoa errotaria
arto ordez emoteko garia.

Orain datorrena abestia dok:

Errotabarriko Erremualdo
harria pikatzen ei dago
ai, ai, ai, ... ai, ai,
Olabarriko Isidro be bai.

—Gehiago be ba jauzak, baina oraingo nahiko dira,
—esan eutsan Lontzok.

Opizio barri honi buruz entzundako gauzakaz Ander
pozik baino pozago gelditu zan. Orain bai esan eikean
«hainbat opizio» ekiazala.

Bere gazte-zorotik hona poz eta samintasun handiko
egun asko igaro ziran, baina une honetan zoriontsua zan,
eta aurrerantzean, Jaungoikoak bakarrik ekian Anderri
zerk itxaroten eutsan.